

teakin argiro jokutzen, zabal eta prestu izaten, maitasunezko lokarritz alkar artu ta ulertzeko alegiñak egiten, ezbarditasunak arintzen. Gure gizartea orrela, bere politika, erri-artu-eman eta erlijio

aldetik begiratur, garbi ta obeagoa izango da noski. Ontan denok egin dezakegu zerbait, eta egin bearra dugu.

Bizkargi



Kristoren Eliza

ELIZA ZER DAN

Eliza zer da? Siñismendun Kristauen bazkuna, Aita Santua buru dalarik. Siñismendunen bazkun onek siñismen bardiña dau, sakramentu bardiñak eta buru bera.

Buru onen menpeko dira. Jesukristok sortu eban bazkun au. Jesukristoren aurretik etzan Elizarik. Ba-zan Sinagoga judeutarren artean eta beste erri batzuetan be ba-ziran alako erlijiño batzuk. Jesukristok munduan zala sortu eban Eliza ta Pentekoste-egunean adierazi. Moisek sortu eban Sinagoga, baiña judeutarrentzat bakarrik. Agindu illunak ebazan Jaungoikoataz eta erri-aldezko legeetaz. Apaizak be ba-ebazan enda baten; lurreko ondasunak eskintzen ebazan; ez eukan sakramenturik, barruko santutasuna ezartzeko beintzat. Sinagoga onek Jesukristo mundura etorri arte bakarrik iraun bear eban. Kristok mundu guztia- rentzat sortu eban Eliza; sinismen agiria adierazten dau; siñismendunen salbaziñoa ta santutasuna dauz elburu. Edozein senditan sortu ta izan daiteke abadetza; arimaren aldezko ondasunak bakarrik eskintzen dauz; egizko sakramentuak daukoz.

Kristo'ri, beraz, Nazaretarra deitzen diote, angotzat zeukatelako, lau Ebanjelioak, Emaus'era zioazten ikasleak, Pedro ta Paul deunak, Apaiz-buruaren neskameak, Jesus oratzera Getsemani'ra joan ziran gudariak, Pontzio Pilato'k, deabruak, eta azkenez, Kristo'k berak ere bai.

Gaurko aziera tresnak

Gaur ez dogu munduan ikusten, ara naiz ona begiak zorroztuaz, egoera orren pozgarria. Ba-ditu bere alderdi onak, muzin egin ta nardatu eziñak. Baiña, zoritxarrez, egia dan bestean ausnartu nai izan ezkerro, biotz-zauskada gogorra damosku gaurko munduaren egoerak.

Aurrera goaz eten barik. Jausi ta jagi, pendizak pendizari dei. Amille-na, udazkeneko aize epel ariña, orbel ta soiñeko zar billa ibilli oi da, aspertu bako ekinēan dana astindu ta iruntsi bearrez. Antzera dabilkiguz gaur gizadiko gauza ta pertsonarik asko. Urduri! Ezin gelditurik!

Gaitz au, alan eta guzti be, ezta gaurkoa. Eragille bako egiñak ete? Ta giza-kondairan jazokun batek beste bati oi egiten. Ez eban norbaitek txarto idatzi: «Gure gizadia, beste gizadi batzuen emaitza da. Gure pentsakera, bizimodu ta jo-

kaerak aurreko gizadietan izan ditue euren sustrai sakonak. Joan dan gizadiak sortu ebazan Europa zar onetan ainbeste ta ainbeste guzur ta bizibide oker. Batzuk aberatsen aurka asi ziran, otso gosedunak lez...; beste batzuk mundu onetako ondasunetan eta lizunkerietan imiñi eben euren atsedeen-leku bakarra. Geienak, Jainkoa alde batera itxiaz, zeru ta inpernua abade ta prailleen kontuak balira lez, mundu ontako zeregiñetan sartu ziran».

Eta gaur be orrela gabiltz. Baiña, barrurago sarturik, urterik urte tresna barriak doguz, eta gogorra-goak, bai aberatsen aurkako, bai mundu onetako ondasun eta atsegiñetarako. Ta olan bizi gara. Ta Jainkorik ez ba'lego, oba. Nasaiago genbiltzakez olan, bakotxak naiēn daua-na egiñik. Bai orixe! Baiña, ez gaitzezan meko izan, ez arlote!

* * *

Arira itzuliaz, ainbat tresna-gisa ditugu gaur, goiaz azitu ta beeko arazo ta atsegiñetan berri-belarri sarturik bizi izateko. Gaur, urteetan aurreratuok olan gabiltza, nasai ta beezaleturik, eta besteak be, txikiagoak, nunbait, era berean ibilitea guzta dogula dirudi. Ez deritxazu? Begira, oster, ingurumari. Zelako kaltea dagian, esate baterako, urruti-ikusiñak edo telebixtak, umetxoen gorputz-arimetan batez be. Gorputzean be bai? Oba ez! Urte gitxi barru,

begiz zenbat lauso ta kirioz zenbat gaixo izango dan gure artean. Kontaeziñak dira, baiña, arimari dakartsozan kalte, gaitz eta ondamenak.

Ona zer jazoten dan umetxoakaz. Umeak ez dau, bere txikitā, zentzun kritikurik, ez daki egia ta guzurra bereizten, ez daki zein dan berezkoa ta zein irudimenak sortua. Bere barne-indarrak ez dira ortaraiño eltzen. Ezta arritzekoa. Ta ordaukazu, jaio danetik esan bear, tresna bildurgarri baten aurrean, telebixtari bekoz beko. Txoriak argia lez dau, sugeak kantua lez: lilluragarri zabu ta duda-muda barik. Eta laster ditu gain zinema ta auraldizkari koloredunak be. Irurak sartuko yakoz, ez egon ezbaian, arima leza barruraiño.

Tresna oneik zelan erabilili erakutsi bear yako umetxoari. Baiña, nagusiok be ete dakigu gero eukaz zelan baliatu? Gaur danok gabiltz lelo bardiña ezpanetan dogula: «Ez dot astirik ezertarako be». Zer dala-ta? Denpora ain ederra, beste gauza asko egiteko bear geunkean aldia, telebixtaren aurrean, askotan beintzat, alperrik galtzen dogulako. Lanerako balitz ortan emon oi dogun asti pizkat, «ez dot astirik» ez geunke esango. Gauzak beti be neurria ta patxada eskatzen dauskue. Aitaturiko tresna oneik edozer gauza ikasteko bide ikaragarriak dira; baiña eraz ta neurritz erabilili ezkerro.

Et x e k o zokorik aukerakoenean daukazun telebixta ori, zeu konturatu ezta be, mundura begiratzeko leio berebizikoa dozu. Orren bitartez edozein tokitara zorroztu zeinkez zeure begiak; edo obeto esan dagizudan, urriñeko gizonak eta gauzak zeure esku mendeko egin oi yatzuz igerri barik. Alan be umetxoen begiak ez dagoz olako arin-ibilli ta taka-takaetarako; eta, begiak diñodanean, umetxoen adimena ta irudimena be aitatu gura dot. Ortik, ba, nagusiak eta gurasoak jagon ta zaindu bear dabez umeak; baita zer ikusi bear daben mugatu ta aukeratu be, gaztetxuon buruak janondo gaixtoz aseegi egin ez daitezā.

Onena auxe litzakigu: txikiak ikusi daikeezan gauza ta egitamuak (programak) arduraz begiz jo ta aukeratu. Au ezin daikegu biarko itxi: gaurtik egin bearra baita. Aurtxuok misteri bat dira, baiña ona itaun bat: telebixtari dagokionez, atsegin yakoz ikusten dabe ala ikusten dabenari azkenik atsegiña artzen dala? Itaun an epel erantzun barik geratu. Umetxoak sardi besterik ez daukelako, ematen yaken gurtia ikusi oi dabe. Euren urteari ondo yatorrena eskini eskeroa, axe ikusiko dabe bakar-bakarrik. Eurak eurenēz, gaur batez be, erroak, lapurrak, estualdiak, isxambillak eta olakoak atsegin dabez. Baiña beste zer asko be, dotore eskiniñirik, pozarren ikusi taroez. Ta era onetan, egitamu egoki, atseginkor

eta onen bitartez, umetxoak azi ta arteztu bearra daukagu. Landara gazteari ez yako edozelan azten izten, inguruan iru bat taket eusgarritzat ipiñi ta aizearen eragiñetatik jagon baiño. Asko ta asko bildur dira gaur, munduko gazteen jokaera ikusiaz. Nundik artu ta ikasi ditu gauzarik asko? Telebixtatik.

Iru bat aste dirala, Bilbao'n nintzan ni, adiskide baten etxean autuan. Ortan, etxeko lau umetxo sartu yakuzan itzez gengoan saloira. Ez eben bape zaratarik atera. Txiki-txoenak —iru urte ez eukazan oindiño— ixil-ixillik joan eta aurrez-aurre geunkan telebixta biztu eban. Ba-ekian, antza, ze ordutan emoten eben berari ta bere anai-arrebatxoai atsegin yakena. Irurak jarleku belaska bigunetan kiribildu ta antxe egon ziran, katutxu antzera, ikusi ta ikusi, guk izketan giñarduan artean. Nik alde egitean be, an gelditu ziran begi-zoli.

Gure telebixta tramankuluetan, zoritxarrez, edozer gauza sakatzen daukue. Ainbat itzaldi zuzendu ta txepel, ainbat iragarki zentzanbako, ainbat kanta suster bagako. Gure umeai aziera egokia emoteko ezta au biderik onena. Gurasoak, naitaez, umeai erakutsi egin bear dautse euren urteai dagokiena ikusten, ez eurarak nai dabena be, urteai dagokiena baiño. Musika, teatru ta antzekoak aintzat artzen erakutsi, baita izar,

landara, abere ta olako gaiak be, atseginduz ikasi dagien. Begoz gurasoak kezka onez kezkatuak. Ondo ta artez, neurriz ta patxadaz erabilli ezkerro, telebixta ezta tresna txarra umetxoak azteko.

Barrutia



Nork errua



Motozerrak, rra, rra,
burnizko urruma
urruka dariola,
katamotzak baiño
anima motzagoz,
—anima geiagoa
gasolina baiño
gizona duelakoz—,
eltzen dio aritzari
erpez eta agoz,
eltzen dio ta aritzak,
bata besteren ondoren,
gorpu zurrin datoz.
Baiña aritzak ditu
motozerrak baiño
eun erru geiagoz
bere burua zaitzen
ikasi ez dulakoz.

Telebista degu motozerra,
eguneroko prensa ta zinema
ta radioa ere motozerra,
eta, eta...

Aritzak bezela
euskaldunak, eta
ariztiak bezela
euskal herriak,
motozerrak, rra, rra,
burnizko urruma
urruka dariola
Herri euskalduna
ebabi darama.
Baiña motozerre
ez da erru gurtia
bere gain duana.

B. Gandiaga